

[EUSKAL AEko TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN INDIZEA \(BMIT\). 2011ko 1. hiruhilekoa](#)

Euskal AEko txikizkako sektoreko salmentak %1,8 jaitsi ziren 2011ko lehenengo hiruhilekoan

Gasolindegia sartu gabe, salmentak %2,9 murriztu ziren

Eustatek emandako datuen arabera, 2011ko lehenengo hiruhilekoan, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean salmenta nominalak %1,8 murriztu ziren, aurreko ekitaldiko hiruhileko beraren aldean.

Salmentak, gasolindegia sartu gabe, %2,9 murriztu ziren aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

Aurreko hiruhilekoaren aldean salmenta-indizea %0,4 nominala hazi da, urtaro-eraginak kenduta.

1. taula. Urte arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. Egutegi-eragin zuzendua daukaten datuak

Urtea	Hiruhilekoa	Euskal AE	Araba / Álava	Bizkaia	Gipuzkoa
2009	II	-6,3	-10,3	-5,3	-5,9
	III	-4,3	-8,8	-5,3	-0,8
	IV	-2,5	-3,6	-2,3	-2,2
2010	I	5,2	3,5	4,8	6,6
	II	1,6	1,9	0,3	3,4
	III	-1,5	-1,2	-1,4	-1,8
	IV	-0,2	1,0	-1,0	0,5
2011	I	-1,8	-1,5	-2,5	-0,7

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeoko txikizkako Barne Merkataritzaren Indizea

Sektoreka, txikizkako espezializatuaren salmenta nominalak %1,3 murriztu dira 2011ko lehen hiruhilekoan; txikizkako espezializatu gabeen %2,5ekoa da jaitsiera 2010eko aldi beraren aldean.

Txikizkako espezializatuan Kontsumoko beste ondasunak nabarmentzen dira: %2,3ko hazkunde nominala. Gainerako sektoreetan jaitsi egin dira salmentak. Elikagaien salmentak %2,6 jaitsi dira; Pertsonaren ekipamenduarenak %3,0, eta Etxearen ekipamenduarenak %0,8. Txikizkako ez-espezializatuan, elikagaiak nagusi direnetan %1,8ko jaitsiera dago eta %6,3koa gainerako produktuak nagusi direnetan.

2011ko lehen hiruhilekoan txikizkako sektoreko salmenta nominalak %2,5 murriztu dira Bizkaian urte artean; Araban %1,5 eta Gipuzkoan %0,7.

Prezio finkoetan, txikizkako merkataritzaren salmentak %4,8 murriztu dira lehen hiruhilekoan

Txikizkako salmentek -gasolindegia sartu gabe- %2,4ko jaitsiera errealak izan dute aurreko urtearen aldean.

2011ko lehen hiruhilekoan Euskal AEko txikizkako merkataritzaren salmenta errealetan %0,6ko jaitsiera dago 2010eko laugarren hiruhilekoaren aldean eta urtaroteginak kenduta.

Txikizkako merkataritza espezializatuaren jaitsiera errealak %4,7 da, eta ez-espezializatuan %4,8koa, 2010eko hiruhileko beraren aldean.

Txikizkako merkataritza espezializatuan urte artekoa negatiboa izan da sektore guztietan. Etxearen ekipamenduan %2,3ko jaitsiera; Pertsonaren ekipamenduan %2,4koa; Elikagaien salmentetan %3,8koa; Kontsumoko beste ondasunetan %6,5koa, beti termino errealetan.

Txikizkako ez-espezializatuan, euro finkoetan, elikagaiak nagusi direnetan %3,9ko jaitsiera dago eta %10,3koa gainerako produktuak nagusi direnetan.

Hiru lurraldeetan izan ziren jaitsierak: Araban %6,0, Bizkaian %5,1, Gipuzkoan %3,8.

Euskal AE osoan, 2010eko laugarren hiruhilekoaren aldean, merkataritzako sektorean landunen kopurua %0,3 murriztu da 2011ko lehen hiruhilekoan.

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizearen gaineko prentsa-ohar gehiago](#)

[Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizearen gaineko datu-bankua](#)